

Mondragon Unibertsitateak ere, asteburu honetan, Donostian ospatuko diren Estropada Ademikoetan parte hartuko du

2014/10/13

Unibertsitate ezberdinetako ikasleak arraunaren inguruan elkartzeko ideia hau, iaz jarri zen martxan. Bigarren edizio honetan, unibertsitate gehiago parte hartzera animatu gara, horrela, frantziako UPPAK eta guk ere parte hartuko dugu aurtengo edizio honetan.

Estropada akademikoak, bi eguneko jardunaldiak izango dira.

Urriak 18, larunbatean, arraunaren eta ibaiaren alderdi ekonomikoaren inguruko hitzaldiak Donostiako Aquariumean emango dira.

Urriak 19, igandean berriz, unibertsitateen arteko estropadak, Urumea ibaian ospatuko dira.

Honetaz gain, argazki eta irudi lehiaketa ere antolatuko da, ekintza hau unibertsitateko eta herriko jendearen artean hedatzeko.

Hurrengo loturetan informazio gehiago topatu dezakezue:

Estropada akademiko kartela

Aquariumeko prentsa aurrekoa parte hartzaileak eta ordutegia

Mintegiko programa

Argazki lehiaketaren arautegia

Animatu ikustera joaten!

